

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IRUÑA OKAKO UDALA

#### Behin betiko onespena ematea Iruña Okako Udaleko eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalari

Ez denez erreklamaziorik aurkeztu eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza aldatzeko erabakiaren aurka hura jendaurrean egon den bitartean (ALHAO, 123. zk., 2024ko urriaren 28koa), behin betiko onetsi da, eta osorik argitaratzen da ordenantzaren testu osoa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2. artikuluan jasotako ondorioetarako:

#### ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

##### I. Xedapen orokorrak

##### 1. artikulua

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta tributuaeren foru arauan ezarritakoarekin bat etorritik, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ezarri eta eskatzen du, ordenantza honen arabera, zeinaren zati baita tarifa aplikagarriak jasotzen dituen eranskina.

##### 2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatzen da.

##### II. Zerga egitatea

##### 3. artikulua

Zerga egitatea da edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea, horretarako beharrezkoa bada obra edo hirigintza lizentzia eskuratzea (lizentzia hori lortu edo ez) edo erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztea, eta baldin eta lizentzia ematea edo kontrol jarduera egitea udalari badagokio.

• Besteak beste, honako hauek daude zergapean:

- Oin berriko edozein eraikin edo instalazio egiteko obrak.
- Lehendik dagoen edozein eraikin eta instalazio handitzeko obrak.
- Lehendik dagoen edozein eraikin eta instalaziori eragiten dioten eraberritze edo aldaketa obrak.
- Lehendik dagoen edozein eraikin eta instalazioren kanpoko itxura aldatzeko obrak.
- Eraikinen barruko antolaketa aldatzeko obrak, haien erabilera edozein dela ere.
- Lurzoruaren Legearen testu bategineko 58. artikuluko 2. apartatuan aipatzen diren eta behin-behinean egitekoak diren obrak.
- Zerbitzu publikoak instalatzeko obrak.

8. Lur mugimenduak (esaterako, lur erauzketak, indusketak eta lubakiak), baldin eta ez badaude zehaztuta eta programatuta baimendu edo onartutako urbanizazio edo eraikuntza proiektu batean egin beharreko obra gisa.

9. Eraikuntzen eraispena, berehalako aurraren adierazpena egin zaienena izan ezik.

10. Aparkalekuetarako, industria edo merkataritza jardueretarako, jarduera profesionaletarako eta zerbitzu publikoetarako erabiltzen diren lur azpiko instalazioak, edo lurpeari eman nahi zaion beste edozein erabilera.

11. Bide publikoetatik ikus daitezkeen propagandako kartelak ipintzeko obrak.

12. Edozein obra, eraikuntza eta instalazio, ahalmen ekonomikoaren erakusgarri diren baliabide ekonomikoen inbertsioa dakartenak eta obra edo hirigintza lizentzia lortu beharra dutenak.

13. Betearazpenerako eta betearazpen subsidiariorako aginduetan ere zerga hau eskatuko da.

Salbuetsita geratzen dira hirugarrenei arriskuak saihesteko betebeharra ezartzen duten betearazpen aginduak.

#### 4. artikulua

Ez zaie zerga hau aplikatuko higiezinenetan egindako eraikuntza, obra eta instalazioei, haien jabari titulartasuna udalarena bada, eta udala bera bada obren jabea.

### III. Salbuespenak

#### 5. artikulua

Zergatik salbuetsita daude honako hauek:

a) Zergari lotuta egon arren eraikuntza, obra edo instalazioaren jabeak estatua, autonomia erkidegoak, lurralde historikoak edo toki erakundeak badira, ez zaie zerga ezarriko, baldin eta zuzenean errepideak, trenbideak, aireportuak, obra hidraulikoak, herrietako eta bertako hondakin uren saneamenduak eraikitzeke badira, ez eta organismo autonomoek kudeatzen badituzte ere, inbertsio berriko obrak izan zein mantentzekoak izan.

b) Arabako Lurralde Historikoko kontzejuen jabegoko edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea, xedea zerbitzu edo erabilera publikoa bada.

c) Ondasun higiezinaren gaineko zergari buruzko uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauaren 4. artikuluan 1. apartatuaren k) letran jasotako salbuespena aplikatu ahal zaien ondasunetan eraikuntzak, instalazioak eta obrak egitea.

### IV. Subjektu pasiboak

#### 6. artikulua

1. Zerga honen subjektu pasibo dira: pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 33. artikuluan zehazten diren entitateak, bai eta testamentu ahalmen baten edo botere osoko gozamen baten faltan gauzatzeko dauden jaraunspenak ere, eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabeak badira, horiek egiten diren eraikinaren jabe izan ala ez.

Aurreko paragrafoan araututakoaren ondorioetarako, eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabetzat joko da haiek egiteak dakartzan gastuak edo kostua ordaintzen dituenak.

2. Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez badu, haren ordeztako subjektu pasibotzat joko da eraikuntza, instalazioa edo obra egiteko lizentzia eskatzen duena edo erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko komunikazioa aurkezten duena edo eraikuntza, instalazioa edo obra egiten duena.

Ordaindutako zerga kuota eskatu ahal izango dio ordeztako subjektu pasiboak zergadunari.

V. Zerga oinarria.

## 7. artikulua

1. Zerga oinarria da eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren kostu erreal eta benetakoa, eta halakotzat hartzen da, ondorio horietarako, gauzatze materialaren kostua.

Ez dira zerga oinarrian sartzen BEZa, ez araubide berezietako antzeko zergak, ezta eraikuntza, instalazio edo obra horiekin loturiko tasa, prezio publiko eta ondare prestazio publiko eta tokian tokikoak ere; ez eta profesionalen soldatak, kontratistaren enpresa etekinak eta gauzatze materialaren kostuan hertsiki sartzen ez diren gainerako kontzeptuak ere.

## VI. Zerga kuota

## 8. artikulua

Zerga honen kuota kalkulatzeko, eranskinean adierazten den karga tasa aplikatuko zaio zerga oinarriari.

Hobariak:

1. Zerga honen subjektu pasiboek zergaren kuotan hobaria izango dute hurrengo ataletan zehatutako baldintzetan.

2. Hobaria zergaren kuota osoari aplikatuko zaio.

Hobariak ez dira bateragarriak elkarren artean.

Ezin da aldi berean hobari bat baino gehiago aplikatu.

Hobariak:

a) Ehuneko 50eko hobaria, gizarte, kultura, historia eta arte inguruabarrak tarteko, udal interes edo erabilera bereziko deklaratura dauden eraikuntza, instalazio eta obrentzat, edo deklarazio hori justifikatzen duen enplegu sustapenekoentzat.

b) Ehuneko 95eko hobaria, eguzki energia autokontsumitzeko aprobetxamendu termiko edo elektrikoko sistemak jartzeagatik. Baldintza bat egongo da hobari hori aplikatzeko: beroa sortzeko instalazioek administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak dituztela egiaztatzea. Hobari hau ez da aplikatuko, baldin eta energia aprobetxatzeko sistema horiek nahitaez instalatu behar badira arloko berariazko arautegiaren arabera. Hobari hori xede horretara bideratutako eraikuntza, instalazio eta obrei dagokien kuotaren zatiari aplikatuko zaio soilik.

c) Ehuneko 90eko hobaria, eraikinak egokitzeko obretan, baldin eta egiten badira mugikor-tasun arazoak dituzten pertsonen irisgarritasun baldintzak edota bizigarritasuna hobetzeko, igogailuak jarriz edo atekak eta sarbideak moldatuz edo antzekoak eginez.

d) Ehuneko 85eko hobaria izango dute 65 urte baino gehiago dituzten etxebizitza jabeek, baldin eta bizigarritasun baldintzak hobetzen dituzten egokitzapen lanak (komunak, bizigarritasuna oro har...) egiten badituzte eta urteko 18.000,00 euro edo gutxiagoko errenta badute, eta ehuneko 90eko hobaria izango dute lehenengo hiru baldintzak bete eta urteko 8.000,00 euro edo gutxiagoko errenta dutenek.

Onura fiskal hori aplikatzeko beharrezkoak diren errenta datuak Iruña Okako Udalak kontsultatu edo egiaztatuko ditu, beste administrazio batzuen esku dauden datuak eskuratuz, Euskadiko Administrazioen Elkarreragingarritasun eta Segurtasun Nodoaren (NISAE) inguruan egituratzen den Euskadiko elkarreragingarritasun ereduaren bidez.

## VII. Sortzapena

## 9. artikulua

Zergaren sortzapena eraikuntza, instalazioa edo obra hasten denean gertatuko da, nahiz eta lizentzia eskuratu gabe eduki.

## VIII. Kudeaketa

**10. artikulua**

Subjektu pasiboak obraren alde aurreko kostuaren gaineko aitorpena aurkeztu behar dio Iruña Okako Udalari, dagokion elkargoak behar bezala ikus-onetsia, eta, harekin batera, obra kontratua, aurrekontu adostua edo jabearen eta obra gauzatu behar duenarekin izenpetutako beste edozein kontratu modalitate.

Aurkeztutako aitorpenaren arabera egingo da zergaren behin-behineko likidazioa.

Eraikuntza, instalazioa edo obra hasita badago, berdin egingo da behin-behineko likidazio hori, nahiz eta lizentzia eskatu, esleitu edo ukatu ez izan, edo erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu ez izan.

Proiektuak handitu edota aldatu nahi izanez gero, hasierako aurrekontuaren kostuaren handitzea aitortu behar da.

**11. artikulua**

Zerga oinarria interesdunak aurkeztutako aurrekontuaren arabera zehaztuko da, betiere dagokion elkargoak ontzat eman badu. Bestela, zerga oinarria udal teknikariek kalkulatu dute proiekturako aurreikusitako kostuaren arabera.

**12. artikulua**

1. Subjektu pasiboak lau hilabete izango ditu, eraikuntza, instalazioa edo obra amaitzen duenetik, benetan egindako eraikuntza, instalazio edo obren azken kostuaren aitorpena aurkezteko, eta horren arabera egingo da zergaren behin betiko likidazioa.

2. Zergak kudeatzen eta ikuskatzen dituzten organoen zereginak dira eraikuntza, instalazio eta obren benetako kostua egiaztatzea eta ikertzea.

**13. artikulua**

Lizentziaren titularrak idatziz eta berariaz adierazten badu uko egiten diola baimendutako obrak, eraikuntzak edo instalazioak egiteari, Iruña Okako Udalak itzuli egingo dio edo baliogabetu egingo du egindako behin-behineko likidazioa.

**14. artikulua**

Udalak zerga honen autolikidazio prozedura ezarriko du, eta, prozedura ezartzen denetik aurrera, subjektu pasiboek obraren kostu zenbatetsiaren autolikidazioa aurkeztu beharko dute, obra edo hirigintza lizentziaren eskaerarekin batera.

**Eranskina**

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO EDO OBRA MOTA	KARGA TASA
Gutxieneko kuota finkoa	9,00 euro
Obra aurrekontuaren gaineko karga tasa (obra txikia)	ehuneko 3
Obra aurrekontuaren gaineko karga tasa (obra handia)	ehuneko 4

**Azken xedapena**

Ordenantza fiskal hau indarrean egongo da ordenantzaren testu osoa ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eta indarrean jarraituko du berariaz aldatu edo indargabetzen den arte.

Iruña Oka, 2024ko abenduaren 16a

*Alkate-lehendakaria*

**MIGUEL ÁNGEL MONTES SANCHEZ**